

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3202

AGINDUA, 2015eko uztailaren 9koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena. Honen bidez onartu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarridun lanpostuak hornitzeko lehiaketa berezien oinarri orokorrak.

I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten lanpostu batzuk bete behar dira. Lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako karrerako funtzionarioentzat dira eta aurrekontuetan diruz hornituta daude; lehiaketa bidez bete behar dira, horrela xedatu baita Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 46. artikuluan eta hurrengoetan. Bada, lege-testu horren 6.1.j) artikuluan eman zaizkidan eskumenak baliatuz eta EAEko Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko araudia (190/2004 Dekretuaren bidez onetsi zena) betez, organo eskudunek aginduzko txostenak egin ostean, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deituko diren lehiaketa bereziak arautzeko oinarri orokorrak onartuko dira. Agindu honen I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena.– Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 9a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarri lanpostuak hornitzeko lehiaketa berezien oinarri orokorrak.

1.– Helburua.

Lehiaketa bereziaren helburua izango da karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren eta III-A berariazko osagarria edo hortik gorakoa esleituta duten lanpostuak hornitzea.

2.– Parte hartzeko baldintzak.

2.1.– Lehiaketa honetan parte hartu dezakete administrazio orokorreko karrerako funtzionarioek; unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako karrerako funtzionarioek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita badaude; eta Osakidetzako estatutupeko langile finkoek edo karrerako funtzionarioek, baldin eta oinarri orokor hauetan eta zehatzetan jasota datozen baldintzak betetzen badituzte, zehatz horietan zehazturik egongo baitira deitutako lanpostuetarako eskakizunak.

Beste herri administrazio batzuetako funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baina langile hauek betetzeko moduko lanpostuak direnean.

2.2.– Oinarri zehatzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunean bete beharko dira eskatutako baldintzak. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete behar dira eskakizunak. Parte hartzeko betekizunak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezingo dute esleitutako lanpostua jabetzan hartu.

2.3.– Karrerako funtzionarioek eta estatutupeko langileek soilik parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, lehiaketa bidez hartu duten lanpostuaren jabetzatik bi urte igaro badira. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 52.2. artikularekin bat etorritik, lan-eskaintza publiko baten bidez hartutako lanpostuak horren hornidurak ezarrita zuen sistema bidez hartutakoak izango dira. Aurreko denbora-muga ez da ezarritako langileak lehiaketa bidez lortutako lanpostuaren atxikipena galdu duenean.

2.4.– Lehiaketan parte hartu ezin dutenak:

a) Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten funtzionarioek, ezingo dute parte hartu egoera horrek dirauen bitartean.

b) Norbere kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian egonik lanera itzuli baino lehen eszedentzian egon beharreko denbora bete ez duten langileek.

2.5.– Diziplinazko espediente baten ondorioz lekuz aldatu diren langileek ezin dute eskatu herri berean lanpostua oraindik zehapena betetzen ari badira.

2.6.– Lehiaketan parte hartu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostu bat behin-behinean esleitu zaion karrerako funtzionarioak. Halaber, erakunde publikoetara lekualdatu ostean behin-behineko lanpostu bati atxikita dauden langileak nahitaez parte hartu behar dute lehiaketa honetan.

2.7.– Behin-behineko lanpostua duten karrerako funtzionarioek lehiaketan parte hartzen ez badute edo lanposturik lortzen ez badu eta ondorioz lekuz aldatu behar bada, behin-behinean atxikiko zaio beste lanpostu bati. Lehenbizi atxikiko dira lehiaketan parte hartu arren lanposturik lortu ez duten funtzionarioak, eta gero lehiaketan parte hartu ez dutenak.

2.8.– Oinarri orokorretan eta zehatzetan ezarri diren baldintzak, baita deitutako lanpostuen betekizunak ere, betetzen dituzten langileek deitzen diren berariazko lehiaketa guztietan parte hartu ahal izango dute; horretarako, hain zuzen, deitutako lanpostu bakoitzaren lehentasun-ordena ezarri beharko dute eskabideetan, 10. oinarrian xedatutakoa betez.

3.– Lehiaketaren faseak.

3.1.– Merezimenduak bi fasetan baloratuko dira:

a) I. aldia. Honako merezimenduak baloratuko dira:

– Lan-esperientzia.

– Tituluak.

– Egin diren hobekuntza-ikastaroak.

– Irakaslana eta ikerketa-lana.

– Euskararen ezagutza maila (lanpostuak hornitzeko betekizun moduan ezarri ez denean).

– Gradu pertsonal finkatua.

– Antzinasuna.

– Ingelesaren, frantsesaren eta/edo alemanaren ezagutza maila (lanpostuak hornitzeko betekizun moduan ezarri ez denean).

b) II. fasea. Lehenengo fasean baloratu ez diren merezimendu bereziak baloratuko dira.

Izan ere, fase honetan baloratuko dira lanpostu bakoitzaren ezagutza eta trebetasun garrantzitsuenak. Oinarri zehatzetan ezarriko da lanpostu bakoitzari zein balorazio sistema aplikatuko zaion.

4.– Gehienez lor daitekeen puntuazioa.

Lehenengo fasean gehienez 238 puntu lor daitezke. Lehenengo fasea gainditzeko 25 puntu lortu behar dira.

Bigarren fasean gehienez 200 puntu lor daitezke. Bigarren fasea gainditzeko gutxieneko puntuazioa lortu behar izan da: 100 puntu.

5.– I. faseko merezimenduak baloratzeko irizpide orokorrak.

Merezimenduak baloratzeko bi irizpide hartuko dira kontuan: lanpostuarekin lotuta dauden eta merezimenduak duen balio formala.

5.1.– Lanarekiko lotura: Baloratu beharreko merezimenduaren edukiaren eta lortu nahi den lanpostuak dituen zereginen artean erlazioaren bat dagoenean baloratuko dira merezimenduak. Erlazioa egongo da, baldin eta egiaztatu den merezimenduaren eta lortu nahi den lanpostuaren jakintza-eremu eta -esparruen artean lotura badago. Ez dira baloratuko lortu nahi den lanpostuarekin loturarik ez duten merezimenduak.

5.2.– Merezimenduaren balio formala.

Balio formala edo garrantzia neurtzeko faktoreak dira:

a) Tituluarena: graduondokoen ordu edo kreditu kopurua.

b) Ikastaroarena: irakaskuntza erakundea, ebaluazioa eta iraupena.

c) Irakaskuntzarena: irakaskuntza erakundea, emandako materiala, geroko edizioak.

d) Bilera profesioaletan egindako komunikazioena: gertaera mota, erakusketa mota, hedapen esparrua eta egiletza.

e) Argitalpen batena: argitalpen-mota, zabalkunde-arloa, edukiaren ezaugarriak, argitaletxearen garrantzia eta egiletza.

f) Ikerketa proiektuarena: egiletza, erakunde finantzazioa, proiektuaren zenbatekoa eta eragina.

5.3.– Bi irizpide horiek –lotura eta balio formala– ezartzen bazaizkie aurreko ataleko merezimenduei, hurrengo koefizientea aplikatuko da merezimendu jakin bat baloratzean. Baremoa hau da: handia (1), tartekoa (0,75), txikia (0,25) edo ezin da baloratu (0). Koefiziente hori 6.2, 6.3 eta 6.4 oinarrien baremoen kategoria bakoitzari esleitutako gehienezko balioaz biderkatuko da.

5.4.– Baloratzeko irizpideak eta merezimendu bakoitzari aplikatutakoa Balorazio Batzordeak argitaratuko ditu, lehiaketa bakoitzaren iragarki-taulan.

5.5.– Soilik baloratuko dira ziurtagirietan egiaztapen-lanak egiteko funtsezkotzat jotzen diren alderdi guztiak (8. oinarria) jasotzen dituzten merezimenduak.

6.– I. fasea: Baloratuko diren merezimenduak.

6.1.– Lan-esperientzia:

Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 60 punturekin. Hauxe da erabiliko den baremoa:

– Lortu nahi denaren lanpostu berdinean duen lan-esperientzia: 0,6 puntu hilabete bakoitzeko.

– Lortu nahi den lanpostuari dagokion jakintza-arloari atxikitako lanpostuan duen lan-esperientzia: 0,3 puntu hilabete bakoitzeko (jakintza-arlo hori lan-monografian islatzen da).

– Lortu nahi den lanpostua atxikita dagoen kidego edo eskalaren bati atxikitako lanpostuan duen lan-esperientzia: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

– Lortu nahi den lanpostua atxikita dagoen taldeari atxikitako lanpostuan duen lan-esperientzia: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

6.1.1.– Beste zerbitzu batzuekin batera aldi berean egindako zerbitzuak ez dira inola ere kontuan hartuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko aldi baterako esleitutako eginkizunetan egindako zerbitzuak.

6.1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora luzeagoz bete duten funtzionario lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, bete duten azken lanpostuaren eginkizunen arabera egingo da balorazioa.

6.1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan hartuko dira ondokoetan emandako aldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo antzeko egoerak.

6.1.4.– Beste herri administrazio batzuetan lan egin dutenei zerbitzuen ziurtagiri eta betetako lanpostuaren/lanpostuen monografia baloratuko zaie. Baina horrelakorik ez badute, lan-esperientzia frogatzeko agirian jasotzen diren zereginak gauzatzeko ezagutzak eta trebetasunak baloratuko zaizkie.

6.2.– Tituluak.

Unibertsitateen edo ospe handiko instituzioen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baloratuko dira, bete nahi den lanpostuaren zereginetik lotura kontuan hartuta, eta gehienez 40 punturekin. Hauxe da erabiliko den baremoa:

a) Gradua, lizentzia, arkitektura edo ingeniari, diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniari teknikoa: gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.

b) Graduondokoa: gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.

c) Doktoregoa: gehienez 22 puntu titulu bakoitzeko.

6.2.1.– Titulu-talde desberdinetako kidego edo eskaletako lehiakideek lanpostu bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu moduan baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.

6.2.2.– Unibertsitateko irakaskuntza berdinetako ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoan sartzen den titulua.

6.2.3.– Ez da merezimendu moduan baloratuko lanpostuan eskatzen den goi mailako titulua lortzeko behar den titulua.

6.2.4.– Graduondoko titulu moduan baloratuko dira hurrengo baldintzetako bat betetzen dutenak:

a) Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.

b) Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.

c) Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota hau 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da gutxienez.

6.2.5.– Mediku espezialistaren, farmazialari espezialistaren edo biologo espezialistaren eta psikologo espezialistaren tituluak ere baloratu ahal izango dira, eta graduondoko irakaskuntzat jo, gehienez 20 punturekin titulu bakoitzeko.

6.3.– Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroen balorazioa.

6.3.1.– Deitutako lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza ikastaroak gaindituta dituztenei ikastaro horiek gehienez 40 punturekin baloratuko zaizkie. Hauxe da erabiliko den baremoa:

a) 10 eta 19 ordu arteko ikastaroak: gehienez puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

- b) 20 eta 39 ordu arteko ikastaroak: gehienez puntu 2 ikastaro bakoitzeko.
- c) 40 eta 79 ordu arteko ikastaroak: gehienez 5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- d) 80 eta 149 ordu arteko ikastaroak: gehienez 8 puntu ikastaro bakoitzeko.
- e) 150 eta 299 ordu arteko ikastaroak: gehienez 10 puntu ikastaro bakoitzeko.
- f) 300 orduko edo gehiagoko ikastaroak: gehienez 12 puntu ikastaro bakoitzeko.

6.3.2.– Hobetzeko ikastaroak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, unibertsitateek edo herri administrazioek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira; bestela, prestakuntza, giza baliabideen garapena, lan-gaikuntza edo ikerketa esparruetan ospe handiko erakundeek eman behar izan dituzte.

6.3.3.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina salbuespen moduan 150 ordu edo ordutik gorakoak ere onartuko dira, noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko baitira.

6.3.4.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzaz izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECT kreditu bakoitzak, ordea, 25 orduko baliokidetzaz izango du.

6.3.5.– Ofimatikako programen gaineko ikastaroen artean soilik baloratuko dira Excel, Access eta PowerPoint-i buruzko maila ertaineko edo aurreratuko ikastaroak.

6.3.6.– Softwarearen Europako Institutuak Informazioaren Teknologiei lotuta ematen dituen erabiltzaileen ziurtagiriak (IT Txartela) prestakuntza ikastaro moduan hartuko dira lehiaketa honetan. IT Txartel hauek IVAPek ezarritako orduen arabera baloratuko dira, hau da, ziurtagiri horiek ebaluatzeko tresnak diren eta ikastaroen aprobetxamendua ziurtatzeko betekizunetako bat diren ikastaroetan ezarri dituen orduen arabera. Dagoeneko baloratuta dauden ikastaroetako IT Txartelak ez dira baloratuko.

6.3.7.– Gai berari buruzko ikastaroak behin bakarrik baloratuko dira; denen artean ordu kopuru handiena duena aukeratu da horretarako.

6.3.8.– Doktoregoko ikastaroak eta unibertsitateko titulua eskuratzeko aukera ematen dutenak hobetzeko ikastaro moduan balora daitezke, aurreko atalen baten baloratu ez badira, 5. oinarrian islatutako irizpide orokorren arabera.

6.3.9.– Hizkuntzen ikastaroak ez dira baloratuko.

6.4.– Irakaskuntza eta ikerketa.

Irakaskuntzari eta ikerketari gehienez 20 puntu emango zaizkie. Hauxe da erabiliko den baremoa:

- Ikastaroak emateko ordu bakoitzeko 0,20 puntu, eta gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.
- Bilera profesionaletan egindako komunikazio bakoitzeko gehienez 2 puntu, eta gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.
- Ikerketa proiektutako partaidetza: proiektu bakoitzeko 2,5 puntu, eta gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira.
- Argitalpenak: gehienez 20 puntu.

a) Ospe handiko aldizkari profesionaletan: gehienez 5 puntu argitalpen bakoitzeko.

b) Beste argitalpen batzuetan: gehienez 2 puntu argitalpen bakoitzeko.

6.4.1.– Irakaskuntza-jarduera noizbehinkakoa denean baino ez da baloratuko, eta betiere ez bada zerbitzuak emateko enplegu-harreman edo kontratu baten ondoriozkoa izan.

6.4.2.– Ikastaro bera behin baino gehiagotan eman bada soilik baloratuko dira ordu kopuru handiena izan duten bi ikastaroak.

6.4.3.– Ez da baloratuko biltzarretan edo jardunaldietan egon izana, ezta mahai-inguruetan parte hartu izana ere, salbuespen batekin: mahaietan komunikazioaren bat aurkeztu bada. Hori gertatzen denean, 5.2. eta 6.4. oinarrietan ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

6.5.– Euskara

Euskara baloratu ahal izateko, eskaturiko lanpostuak ezin du eduki derrigortasun-data iraungirik lanpostu-zerrendan.

Euskara merezimendutzat joko da; gehienez ere 48 punturekin. Puntuazio honen arabera:

4. Hizkuntza Eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

– 2. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 30 puntu.

– 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu.

– 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 48 puntu.

3. Hizkuntza Eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

– 2. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 30 puntu.

– 3 edo 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu.

2. Hizkuntza Eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

– 2., 3. eta 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeagatik: 30 puntu.

6.6.– Gradu pertsonal finkatua.

Parte hartzen den kidegoan edo eskalan gradu pertsonal finkatua duenari gehienez 10 puntu emango zaizkio, hurrengo banaketaren arabera:

a) Eskatutako lanpostuaren osagarri maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala duenari: 10 puntu.

b) Eskatutako lanpostuaren osagarri maila baino gradu pertsonal txikiagoa duenari: 5 puntu.

6.7.– Antzinasuna.

Herri administrazioan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,084 puntu zenbatuko dira, eta gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

Ondorio horietarako, karrerako funtzionario izan baino lehen eman diren eta aitortuta dauden zerbitzuak ere baloratuko dira. Alegatutako beste zerbitzuekin batera eman diren zerbitzuak ez dira kontuan hartuko.

6.8.– Hizkuntzen ezagutza.

Frantsesaren, ingelesaren eta alemanaren ezagutzak baloratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautaketa eta hornidura prozesuetan hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetzak ezartzen dituen ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hizkuntza horien ezagutzagatik gehienez 10 puntu emango dira. Hauxe da erabiliko den baremoa:

a) B2 mailaren baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak: 5 puntu.

b) C1 mailaren baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak: 10 puntu.

7.– Merezimenduen balorazioa (II. fasea).

7.1.– Merezimenduak baloratzeko fase honetan lanpostu bakoitzeko ezagutza eta trebetasun garrantzitsuenak baloratuko dira; horretarako, idatzizko proba praktikoa ebaluatuko da.

7.2.– Proba praktikoa 7.3 oinarrian azaldutako irizpideen arabera baloratuko da. Proba hori gehienez 200 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 100 puntu lortu beharko dira.

7.3.– Proba praktikoa.

7.3.1.– Oro har, deitutako lanpostu bakoitzerako berariazko proba praktikoa bat egingo da. Proba hori oinarri espezifikoetan zehaztuko da.

Nolanahi ere, baldin eta bi lanpostu edo gehiagorako ezagupen edo trebezia berberak badira, Balorazio Batzordeak eskainitako lanpostu desberdinetarako proba praktikoa bera egitea erabaki ahal izango du.

7.3.2.– Proba praktikoa bi motatakoa izan daiteke: kasu praktikoa baten ebazpena edo proiektu baten gauzapena.

7.3.3.– Kasu praktikoa bidez honakoak baloratu ahal izango dira: batetik, arazo zailak aztertze eta diagnostikatzeko trebetasunak; eta bestetik, lanpostuko eginkizun garrantzitsuetan ezagutzak, irizpide teknikoak, prozedurak eta gauzatze-estrategiak aplikatzea.

7.3.4.– Kasu praktikoa ebazteko, eman diren galderei erantzungo dien txosten bat egin beharko da, eta horretarako, tartean dauden aldagaiak, eragin handiko faktoreak, aldagaien arteko erlazioak eta loturak aztertu beharko dira; argudioak, interpretazioak eta/edo konponbide egingarriak proposatu beharko dira, eta ondorioak idatzi beharko dira kasu bakoitzean emandako eskema betez. Kasu praktikoa probak gutxienezko egitura izango du; egoeraren diagnostikoa jaso behar du eta proposatutako arazoa edo arazoak konpontzeko argudioak dituzten konponbideak eman behar ditu.

7.3.5.– Proiektua egiteko probaren bidez trebetasun jakin batzuk ebaluatuko dira. Honakoak: konponbideak diagnostikatzea eta diseinatzea, baliabideen plangintza egiteko estrategiak, eta ezarritako helburuak bete direla egiaztatze irizpideen eta tekniken aplikazioa.

7.3.6.– Proiektua egiteko probaren erantzuna ondorengo eskema orokorraren arabera izango da. Dena den, Balorazio Batzordeak eskema lanpostuaren berezitasunetara egokitzea izango du.

1.– Egoeraren gaineko diagnostikoa eta helburuen ezarpena.

2.– Behar diren jardueren diseinua.

3.– Plangintza. Baliabideen esleipena: pertsonak, teknikariak, lanabesak eta denbora.

4.– Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa. Irizpideak eta adierazleak.

8.– Merezimenduak eta betekizunak alegatzea eta egiaztatzea.

8.1.– Irizpide orokorrak.

8.1.1.– Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu behar dira baloratu nahi diren betekizun eta merezimendu guztiak. Erregistro pertsonalean jasota dauden merezimendu guztiak alegatuzat joko dira, eta, horrenbestez, ofizioz baloratuko dira, prozedura honen ondorioetarako soilik.

8.1.2.– Parte hartzen duten langileek soilik egiaztatu behar dituzte, eskabideak aurkezteko epearen barruan, Langileen Erregistroan jasotzen ez diren betekizunak eta merezimenduak. Erregistroan dauden betekizunak eta merezimenduak Intranetean kontsulta daitezke.

8.1.3.– Lanpostuen zerrendan berariazko betekizunak ezartzen badira lanpostu jakin baterako, eta horietan xedatzen bada probaren bidez egiaztatu daitezkeela, Balorazio Batzordeak diseinatu eta baloratuko du proba hori eta gai edo ez gai den adieraziko du.

8.2.– Lan-esperientzia.

8.2.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aitortutako lan-esperientzia ofizioz sartuko da; beraz, ez da alegatu edo egiaztatu beharrik izango.

8.2.2.– Beste herri administrazio batzuetako lan-esperientzia alegatu egin behar da, eta administrazio horietako langileen arloko organo eskudunek egiaztatu beharko dute. Aurreko egiaztapena egiteko III. eranskineko ereduak bete behar da; bestela, ereduak alderdi guztiak jasotzen dituen beste edozein erabili ahal izango da.

8.3.– Tituluak.

8.3.1.– Langileen Erregistroan jasotzen ez diren tituluak horien kopia konpultsatua aurkeztuz egiaztatu behar dira; baina tituluak eskura ez dagoenean, tituluaren ordeko ziurtagiriaren edo titulua jaulkitzeko tasak ordaindu izanaren frogagiriaren kopia konpultsatua aurkeztuko dira.

8.3.2.– Titulu akademiko ofizialak eta atzerriko tituluak homologatzeko ziurtagiriak Hezkuntza Ministerioak edo unibertsitateetako errektoreak jaulki behar ditu.

8.3.3.– Unibertsitateetako graduondoko berezko tituluak egiaztatzeko, unibertsitateko errektoreak jaulkitako diplomak aurkeztu beharko dira. Horietan, gainera, berariaz jaso behar da zenbat ordu edo kreditu egin diren.

8.3.4.– Goi mailako gainerako irakaskuntza programak egiaztatzeko, dagokion erakundeak jaulkitako diplomak aurkeztu beharko dira; eta denetan jaso behar da ikasketa-planak zenbat ordu edo kreditu izan dituen.

8.3.5.– Araututako lanbide baten gaikuntza profesionala aitortzen duen egiaztapena aurkeztu ahal izango da (Europar Batasunaren xedapenen babesean) dagokion titulu akademikoaren egiaztapenaren ordean.

8.4.– Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak.

8.4.1.– Langileen Erregistroan jasotzen ez diren ikastaroak egiaztatzeko kopia konpultsatua aurkeztu behar da, edo ikastaro horiek antolatu edo deitu dituen organoaren nahiz erakundearen ziurtagiria. Baina ondokoak jaso behar dira bertan:

- a) Titulua.
- b) Hasiera eta amaiera datak, eta iraupena (orduak).
- c) Ziurtagiria egin duen erakundea.

8.4.2.– Lehenagoko doktorego ikastaroek ez dute ikasketa aurreratuen graduondoko titulurik; beraz, ikasketen ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira.

8.5.– Irakaskuntza eta ikerketa.

8.5.1.– Langileen Erregistroan jasotzen ez diren irakaskuntzak eta ikerketak ziurtagiri baten bidez egiaztatu behar dira, eta bertan merezimendu bakoitzerako funtsezkotzat jotzen diren edukiak jasoko dira.

8.5.2.– Emandako ikastaroak egiaztatzeko ikastaro horiek antolatu edo deitu dituzten organoen edo erakundearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Eta ondokoak jaso behar dituzte:

- a) Titulua.
- b) Hasiera eta amaiera datak, eta iraupena (orduak).
- c) Ziurtagiria egin duen erakundea.

Era berean, irakaskuntza-jarduerari balorazio handiagoa ematea nahi bada, erabili den material didaktikoaren kopia eranstea gomendatzen da.

8.5.3.– Komunikazioak eta txostenak egiaztatzeko horien kopiak aurkeztu behar dira, baita horiek antolatu edo deitu dituen organoaren edo erakundearen ziurtagiria ere. Ondokoak jaso behar dira:

- a) Egilea.
- b) Data.
- c) Titulua.
- d) Biltzarraren edo topaketaren izena.
- e) Erakunde antolatzailea.

8.5.4.– Ikerketa proiektuetako parte-hartzea egiaztatzeko, ikerketa proiektuaren organoaren edo erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Eta ondokoak jaso behar ditu:

- a) Zuzendaria/laguntzailea.
- b) Taldeko kide kopurua.
- c) Aurrekontua.
- d) Hasiera eta amaiera datak.
- e) Erakunde finantzatzailea.

Era berean, proiektuaren ondoriozko ekarpenek eta argitalpenek azken balorazioa hobetu ahal izango dute.

8.5.5.– Argitalpenak egiaztatzeko jatorrizko argitalpenak edo horien kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

8.6.– Euskara.

Langileen Erregistroan jasota ez dauden tituluak edo ziurtagiriak bakarrik egiazta daitezke. Euskara-tituluen eta ziurtagirien baliokidetzak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan araututakoak dira. Dekretu hori euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko baita.

Euskara betekizun nahiz merezimendu moduan egiazta daiteke, eta horretarako erakunde ofizial batek jaulkitako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

8.7.– Hizkuntzak.

Langileen Erregistroan jasota ez dauden tituluak edo ziurtagiriak bakarrik egiaztatu beharko dira.

8.8.– Gradu pertsonala.

8.8.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aitortutako gradu pertsonala ofizioz sartuko da; beraz, ez da alegatu edo egiaztatu beharrik izango.

8.8.2.– Baina administrazio honek aitortu ez dena eta, beraz, Langileen Erregistroan jasotzen ez dena egiaztatu egin behar da. Horretarako, jatorriko administrazioan langileen arloan eskumena duten organoen ziurtagiria aurkeztu behar da. Aurreko egiaztapena egiteko III. eranskineko eredia bete behar da; bestela, ereduko alderdi guztiak jasotzen dituen beste edozein erabili ahal izango da.

8.9.– Antzinasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aitortutako antzinasuna ofizioz sartuko da; beraz, ez da alegatu edo egiaztatu beharrik izango.

Beste herri administrazio batzuetan emandako zerbitzuen antzinasuna, Langileen Erregistroan jasota ez badago, jatorriko administrazioan langileen arloan eskumena duten organoen ziurtagiri bidez egiaztatuko da. Aurreko egiaztapena egiteko III. eranskineko eredia bete behar da; bestela, ereduko alderdi guztiak jasotzen dituen beste edozein erabili ahal izango da.

8.10.– Merezimenduen eta betekizunen zuzenketa.

Balorazio Batzordeak interesdunei edo hauek lan egin duten administrazioei eska diezaieke zerbait argitzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko, baldin eta betekizun bat behar bezala egiaztatzeko edo alegatu diren merezimenduak baloratzeko beharrezkotzat jotzen badu. Horrelakoetan, hautagaiari eskatuko zaio hamar egun baliodunetan aurkezteko eskatu zaion informazioa.

8.11.– Erreferentzia data.

Merezimenduak baloratzeko erreferentzia gisa hartuko da oinarriz zehatzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren eguna.

9.– Balorazio Batzordeak.

Oinarri orokor hauen bidez arautzen diren berariazko lehiaketetako lanpostuak multzoka sailkatuko dira eta lehiaketa desberdinetan deituko dira, balorazio batzordeetako kideen espezialitate printzipioa errespetatuz betiere.

9.1.– Osaera.

Balorazio Batzordeen zereginak izango dira betekizunak egiaztatzea, merezimenduak baloratzea, puntuazio onenak lortu dituzten hautagaiei esleipena egiteko proposamena luzatzea lehiaketa deitu duen organoari (egoki bada), eta oro har, oinarri hauek betetzen direla bermatzea. Batzordeek kidekopuru bakoitia izango dute, gutxienez bost.

Balorazio Batzordeetan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ordezkariak orekatua egongo da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak, gutxienez, % 40ko ordezkariak duenean.

Balorazio Batzordeak lehiaketa deitu duen agintariari eska diezairoke aholkulari-lanetarako adituak izendatzeko. Aholkulari horiek, hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

9.2.– Prestakuntza.

Balorazio Batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak izango dira, eta deitutako lanpostuetan eskatutako titulu-taldeetako kidegoetakoak edo eskaletakoak, edo goragokoetakoak, izango dira.

9.3.– Jarduera.

Balorazio Batzordeek askatasun osoz, diskrezionaltasun teknikoaz eta objektibotasunez jardungo dute, eta haien proposamenek Herri Administrazio eta Justiziako sailburua lotetsiko dute.

Jarduteko duten diskrezionaltasun teknikoa gorabehera, ebazpenak arrazoitu egin beharko dituzte, arauak eta oinarriak bete beharrez.

Batzordeen jarduna arautuko dute oinarri hauetan ezarritakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko erregelamenduak (urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onetsi dena) eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.

Hautaketa-prozesu orotan bete behar diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak eraginkorrako izan daitezten (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 25. artikulua arabera), epaimahaien eztabaidak isilpean gordeko dira. Era berean, hartzen diren erabakiak ere isilpean gorde beharko dira harik eta prozedura egokiaren bidez argitara eman arte. Batzordeak aurkezten diren pertsonen anonimotasuna bermatu behar du probak egitean eta zuzentzean.

Balorazio Batzordeek aurkezten den edozein zalantza ebatzi ahal izango dute eta, oinarri hauetan ezartzen ez den guztian, lehiaketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dituzte.

Balorazio Batzordeetako kideei eta horien aholkulariei ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoak (halakorik ordaindu behar denean) otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua, zerbitzuaren ziozko kalte-ordainei buruzkoa, bete beharko dute (zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainei buruzko dekretua bigarrenez aldatu duen abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuaren arabera).

10.– Lehiaketa nola egingo den.

10.1.– Eskabideak non eta nola aurkeztu.

10.1.1.– Lehiaketa honetan parte hartzeko eskariak 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, berariazko oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

10.1.2.– Parte hartu nahi dutenek eskabidea intranet bidez egin beharko dute, lehiaketen atalean dagoen ereduia betez. Eskabideak era horretan aurkezten dituztenei jaso izanaren agiria emango zaie.

10.1.3.– Salbuespenez, egoera aktiboan ez dauden edo lanpostuan aldi baterako ez dauden langileek deialdi honetako II. eranskin modura datorren ereduia aurkeztu ahal izango dute 30/1992 Legearen 38. artikulua araberak gaitutako edozein erregistroan. Halakoetan, eskabidea Funtzio Publikoaren zuzendariari zuzendu beharko zaio.

10.1.4.– Eskabide baldintzadunak. Baliteke, familiako elkarbizitza-arrazoia direla eta, lehiaketa honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten bi pertsonen lanpostua herri berean edo hurbileko herrietan lortu nahi izatea; halakoetan, eskabideetan, baldintza modura lanpostua biek hala biek lortu beharra adierazi dezakete, eta, hala ez bada, dena delako herriko lanpostuetarako eskabide biak indarrrik gabe geratuko dira.

10.1.5.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, ez dugu eskabideak ezertan aldatzerik onartuko. Baina, esleipenen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak egiteko epe barruan, lehiatzaileek, hala nahi badute, lehiaketan atzera egiteko eta ez parte hartzeko aukera ere izango dute.

10.1.6.– Lanerako baldintzak betez gero, eta, lehentasuna zehaztuz gero, deialdiko lanpostu hutsetatik nahi diren guztiak eska daitezke, edozein lehiaketatan deitu direla ere.

10.1.7.– Lehiaketa batean baino gehiagotan edo kidego diferenteetan eskainitako lanpostuetan parte hartu nahi duten pertsonen eskabidean dagokion atalean bete beharko dute zein lanpostutan parte hartu nahi duen, lehentasunaren hurrenkeran ordenatuta. Horretarako, berariazko lehiaketa guztien II Faseko behin-betiko emaitzak argitaratu eta gero, bost egun baliodunetako epea irekiko da interesatuek lanpostu guztiak erregistra ditzaten, lehentasunaren hurrenkeran ordenatuta, eta lehiaketa bakoitzean egindako lanpostuen ordena ezin izango da aldatu.

10.1.8.– Lanpostua betetzeko baldintzak egiaztatzeko agiriak eta aurkeztu nahi diren merezimenduak egiaztatzeko agiriak eskabidearekin batera aurkeztu behar dira, 8. oinarrian zehazturik datorren moduan. Eskabide elektronikoa egiten bada, eskabideak aurkezteko epe bera egongo da merezimenduak edo baldintzak egiaztatzeko. Epe barruan aurkezten ez badira, egiaztatu gabetzat joko ditugu.

10.2.– Lanpostu bakoitzerako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako administrazio zerbitzuek Balorazio Batzordeko buruari bidaliko dizkiote aurkeztutako eskabideak, erantsitako agiriekin batera. Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak Batzordearen zereginak erraztuko ditu; horretarako, baldintzak betetzen direla eta agiri egokiak aurkeztu direla egiaztatuko du alde aurretik.

Nolanahi ere, Balorazio Batzordeak baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena berretsiko du, lanpostu bakoitzean onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda egingo du eta zerrenda hori 11. oinarrian azaltzen diren lekuetan argitaratzea erabakiko du; halaber, 5 egun balioduneko epea emango du interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten. Kautelaz, derrigorrezko 4. Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten pertsonak sartuko dira.

10.3.– Erreklamazioak aztertzea eta onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzea.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gero, Balorazio Batzordeak horiek ebatzi, lanpostu bakoitzean onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda taxutu eta horiek 11. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea xedatuko du.

10.4.– I. faseari dagozkion merezimenduak baloratzea eta fase hori gainditu duten parte-hartzaileen behin-behineko emaitzak argitaratzea.

Lanpostu bakoitzean onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda taxutu eta gero, Balorazio Batzordeak merezimenduen balorazioa egin, fase hori gainditu dutenen zerrenda taxutu eta zerrenda hori 11. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea xedatuko du. Interesdunek 5 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

Halaber, proba praktikoak noiz eta non egingo diren ezarriko da, lehiaketako iragarki-oholean argitaratzeko.

10.5.– I. faseko erreklamazioak aztertzea eta behin betiko emaitzak taxutu eta argitaratzea.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gero, Balorazio Batzordeak erreklamazio horiek ebatzi, I. faseko merezimenduen balorazioaren behin betiko zerrenda eta onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda taxutu eta horiek 11. oinarrian azaldutako lekuetan argitaratzea xedatuko du.

10.6.– Proba praktikoa egitea eta baloratzea. Emaitzen behin-behineko zerrenda argitaratzea.

Hautagaiek Balorazio Batzordeak lanpostu bakoitzerako ezarritako egunean eta orduan egin beharko dute proba praktikoa, deialdi bakarrean.

Probak egitera I. fasea gainditu duten pertsonak aurkeztu ahalko dira, bai eta prozesutik kanpo geratu direnen zerrendan egonik gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dutela egiaztatzen dutenak ere (errekurtsioak ebazteke egon beharko du, eta ekitaldian egiaztatu beharko dute aurkeztu izana).

Balorazio Batzordeak I. fasea gainditu duten hautagai guztien proba praktikoa baloratuko du, gainditu duten hautagaien zerrenda taxutuko du, eta zerrenda 11. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzeko erabakia hartuko du. Halaber, interesdunei 5 egun balioduneko epea emango die erreklamazioak aurkezteko.

10.7.– Erreklamazioak aztertzea. II. faseko behin betiko emaitzak argitaratzea.

Erreklamazioak aztertu eta horren gainean ebatzi ondoren, II. fasea gainditu dutenen proba praktikoaren behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

10.8.– Lanpostuak esleitzea eta esleipenen behin-behineko zerrenda argitaratzea. Atzera egiteko epea.

10.8.1.– Halaber, esleipenen behin-behineko proposamena 11. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea erabakiko da, eta 10 egun balioduneko epea emango da interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten. Epe horren beraren barruan parte-hartzaileei aukera emango zaie lehiaketa osoan parte hartzeko eskarian atzera egiteko.

10.8.2.– Esleipen-proposamenean honakoak hartuko dira kontuan: lehiaketara atera diren lanpostuak, balorazioaren emaitza eta eskarian aurkeztu den hurrenkera-ordena. Eskabidean ezarritako hurrenkera-ordenaren ondorioa hau da: pertsona bati lanpostu bakar bat esleitu ahal izango zaio, hainbat lehiaketatan edo hainbat kidegotarako parte hartzen badu ere.

Nolanahi ere, lanpostu bati aldi baterako atxikita dauden langileek (aurrez betetzen zuten lanpostua utzi egin behar izan duelako, kendu dutelako lanpostutik mugiarazi dutelako) lehentasuna izango dute lehiaketa honetan lanposturen bat betetzeko, bai eta, behingoagatik bakarrik, udalerrri berean sortutako lanpostu hutsak betetzeko ere (kendutako lanpostuaren lanpostu mailako osagarri berdina edo baxuagoa dutelako).

Lehiaketa osoaren puntuazioan berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira berdinketa argitzeko:

– Emakumeei emango zaie lehentasuna, dena delako kidego, aukera edo eskala eta kokapen-mailan emakumeak % 40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da plazarako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu, horregatik sexuagatiko diskriminaziorik ez dagoela; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

– II. fasean lortutako puntuazioa: proban lortutako puntuazioa.

– I. fasean lortutako guztizko puntuazioa.

– I. fasean, merezimenduetan lortutako puntuazioa deialdiaren oinarrian adierazitako hurrenkeraren arabera.

– Antzintasuna, lehiari dagoen kidegoan edo eskalan karrerako funtzionario gisa lan egindako denbora.

– Antzintasuna, karrerako funtzionario gisa lan egindako denbora.

– Antzintasuna, azken behin betiko lanpostuan lan egindako denbora, eta Administrazioan lan egindako denbora.

Berdinketa hausteko beste irizpiderik behar izatekotan, Balorazio Batzordeak merezimendu printzipioaren arabera zehaztuko du.

10.9.– Atzera egiteko eskariak aztertzea. Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari helaraziko zaio eskainitako lanpostuen esleipenaren proposamena.

Erreklamazioak eta atzera egiteko eskariak aurkezteko epea amaituta, Balorazio Batzordeak baloratuko ditu, esleipenen behin betiko proposamena egingo du, eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari bidaliko dio.

10.10.– Lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratzea.

Behin betiko esleipen-proposamena jasotzen duenean, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak onetsi egingo du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindu. Agindu horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, agindua argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean; edo administrazioaren aurkako auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

11.– Argitaratzeko lekua.

11.1.– Lehiaketan parte hartzen dutenentzako informazio garrantzitsu guztia eta, zehazki, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak eta esleipenen zerrendak honako helbide hauetan dauden iragarki-oholetan argitaratuko dira:

Intranet: «Langilearen Ataria».

Internet: www.euskadi.eus/concurso

Oinarri hauetan ezarritako epeak zenbatzeko argitalpen horrek bakarrik balio izango du. Horrenbestez, ez da beharrezkoa izango bestelako iragarki-ohol edo hedabidetan argitaratzea.

11.2.– Deialdia, halaber, harpidetza pertsonalatuaren bidez zabalduko da; hala, lehiaketaren fase bakoitzari buruzko informazio zehatza posta elektronikoz jaso ahal izango da. Zerbitzu hau baliatzeko, helbide elektronikoa eduki behar da, besterik ez, eta langilearen atarian eskatu ahal da, edo bestela posta elektronikoko mezu bat bidaliz provision-seleccion@euskadi.eus helbidera.

12.– Lanpostuak esleitzea. Kargua uztea eta karguaz jabetzea.

12.1.– Esleipendunek lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko dute, eta horrenbestez, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko dute, horrelakorik izanez gero, ez badute beste lanposturik lortu lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, deialdi publikoaren bidez, gerora agertutako ezintasunagatik, zerbitzu aktiboaz bestelako egoera batera igarotzeagatik edo, deialdia egin duen organoak bidezkotzat jotzen dituen aparteko arrazoiengatik.

12.2.– Antolaketa errazteko, esleipen-ebazpenean argi adieraziko da esleipena lortu duten langileek zein egun jakinetan utzi beharko duten lehengo kargua eta berria hartu.

12.3.– Lehiaketa honetan lanpostu-erreserba dakarten egoeraren batean daudela parte hartu duten langileek aurrerantzean ere administrazio egoera berean jarraituko dute, lanpostua lortzen badute, kasu batean salbu: bueltatzea berariaz eskatzen badute, aurreko atalean azaldutako bost egun balioduneko epean.

12.4.– Esleitutako lanpostua borondatezkoa dela ulertuko da, hortaz ez du eskubiderik emango inolako arrazoiengatik kalte-ordainak jasotzeko.

13.– Lehiaketaren kudeaketan datu pertsonalak babestea.

Lehiaketa kudeatzerakoan, datu pertsonalak Herri Administrazio eta Justizia Saileko langileen fitxategian tratatuko dira; Herri Administrazio eta Justizia Saila bera da fitxategiaren ardura duen administrazio-organoa, eta aukera ematen du datuok atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo horien aurka egiteko, haren Funtzio Publikoaren Zuzendaritzara jota.

Parte hartzeko eskabide-orriek horren berri emateko informazio-klausula bat ekarriko dute, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera.

Herri Administrazio eta Justizia Saileko administrazio-langileek, Balorazio Batzordeko kideek eta, baldin balego, batzordeari laguntzeko langile espezializatuek sekretuan gorde beharko dituzte lehiaketa kudeatzerakoan jakiten dituzten datu pertsonal guztiak.

Balorazio Batzordeak aginduta, 11. oinarrian aipatutako lekuetan argitaratuko diren onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendan, I. fasea gainditu duten behin-behineko eta behin betiko hautagaien zerrendan, probaren behin-behineko eta behin betiko emaitzen zerrendan eta esleipenen behin-behineko zerrendan, ahalik eta datu pertsonal gutxien azaldu beharko dira: publizitate-printzipioa betetzeko beharrezkoak besterik ez. Datuok bere horretan utzi beharko dira harik eta esleipen-prozesua amaitzen den arte eta erreklamazio edo errekursoak gauzatzeko beharrezko aparteko denbora guztian.

Zerrenda horiek klausula bat edukiko dute ohartarazteko zerrendotan datu pertsonalak ageri direla, datuak babesteko gaur egungo legedia betetzen dutela eta datuon helburu bakarra dela lehiaketaren fase zehatz horri publizitatea egitea eta, hala egokitzen denean, parte-hartzaileei jakinaraztea. Horrez gain, informazio-paragrafo bat ere edukiko dute adierazteko datuok ez direla edonork hartu edo erabiltzeko, eta ezin izango direla erreproduzitu –ez osorik ez zatika–, transmititu, edo edonolako errekonstruzio-sistema erabili erregistratu, tarteko hautagaiek berek horretarako baimenik eman gabe.

Lehiaketan jarritako lanpostuen behin betiko esleipenen zerrenda onartzeko Herri Administrazio eta Justizia sailburuak emandako agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean, ahalik eta datu pertsonal gutxien azaldu beharko dira, publizitate-printzipioa betetzeko beharrezkoak besterik ez.